

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 14-16URTE

LEHENENGO AKZESITA:

Bizitzaren maite-sua

Marcos Zazuar Peña

Zuri esker bizitza zer den ulertu dut,
izan ere, euri azpian, busti-bustita,
euri tanten erorketa ez dut nabaritzen
zure begiradarekin amesten banago.
Aldi berean, nire begiak ez dira Ilargiaren argiarekin
harritzen,
non-nahi, hortik esaten da maitasunak itsutzen duela.
Eta, zer da maitasuna?
Galdetzen diot nire buruari goizero;
hamaika ideia loratzen zaizkit gogoan.
Haur baten urduritasun tolesgabea
Olentzerorekin amets egitean,
lamien ilearen orrazkerak eragindako lasaitasuna,
iloba baten berotasuna aitonaren istorio biziak entzutean,
otso-aldretan dagoen banakoen arteko errespetua...
Hala ere, ez du zer ikusirik
nire ariman sortzen duzun zoriontasun gardenarekin.